


UDALTZAINGOA	GIDABAIMENEN HELBIDE-ALDAKETA ETA PENINTSULAN ETA BALEAR UHARTEETAN EMANDAKO ZIRKULAZIO-BAIMENEN HELBIDE-ALDAKETA
Deskripzioa:	Baimena ematea Eibarko Udalari gidabaimenen helbide-aldaketa eta penintsulan eta Balear Uharteetan emandako zirkulazio-baimenen helbide-aldaketa tramitatu dezan Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzan.
Hartzailea:	Eibarren erroldatuta dagoen eta haren gidabaimeneko edota haren ibilgailuaren zirkulazio-baimeneko helbidea aldatu nahi duen pertsona fisiko oro.
Eskaera epea: Beharrezko dokumentuak:	Urte osoan zabalik. <ol style="list-style-type: none"> 1. Gidabaimenen helbide-aldaketa eta penintsulan eta Balear Uharteetan emandako zirkulazio-baimenen helbide-aldaketa eskaera (UD0600_D001) behar bezala beteta. Gidabaimenaren helbidea aldatu nahiez gero, titularrak sinatu beharko du eskaera. Zirkulazio-baimenaren helbidea aldatu nahiez gero, ibilgailuaren titularrak sinatu beharko du (titular bat baino gehiago badira, lehenengoak egin dezala). 2. Gidabaimenaren edo/eta zirkulazio-baimenaren titularraren identifikazio agiria, ORIGINALA. 3. Gidabaimenaren helbidea aldatu nahiez gero, gidabaimena, ORIGINALA. 4. Zirkulazio-baimenaren helbidea aldatu nahiez gero, zirkulazio-baimena, ORIGINALA.
Tramitazio kanalak:	 PEGORA (herritarren zerbitzurako bulegoa) Untzaga plaza 1. Beheko solairua.
Tasak:	Doan.
Sail arduraduna:	Udaltzaingoa.
Ebazpen organoa:	Gipuzkoako Trafiko Buruzagitza.
Tramitazio epea:	Epea (ohikoa): 20 egun. Ebazpena emateko gehienezko epea (legala): 2 hilabete.
Isiltasun-izaera:	Ez dagokio.
Ebazpenaren kontrako errekurtsoak:	Ez dagokio.
Hurrengo tramiteak (prozedura):	<ol style="list-style-type: none"> 1. PEGORA: egiaztatu baldintzak betetzen direla, datuak ondo daudela eta agiri guztiak aurkeztu direla; sarrera-erregistroa egin eta Udaltzaingoari bidali eskaera. 2010eko irailaren 22a baino lehen emandako zirkulazio-baimen originaletan, eginbide batekin zigilatuko da zirkulazio-baimena, helbide-aldaketa agerrarazteko, eta baimena titularrari itzuliko zaio. 2. UDALTZAINGOA: datu osagarriak egiaztatu, hala badagokio, eta helbide-aldaketaren datuak bete eta Trafikora bidali. 3. TRAFIKO: bere datu-basean sartu helbide aldaketa eta baieztapena bidali Udaltzaingoari.
Lege-araudia:	<ul style="list-style-type: none"> • Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzak sinatutako hitzarmena.
Oharrak:	<ul style="list-style-type: none"> • Titular bat baino gehiago duten ibilgailuen kasuan, lehenengo titularrak bakarrik eskatu ahal izango du helbide-aldaketa. • Kanaria Uharteetako, Ceutako eta Melillako ibilgailuen titularrak Gipuzkoako Trafiko Buruzagitzan eskatu beharko dute zirkulazio-baimenen helbide-aldaketa. Pertsona juridikoak ere Buruzagitzara joan beharko dira zirkulazio-baimenen aldaketak eskatzera. • Biztanleen errolda kudeatzeko jarraibideetan jasotako arazoirenen batengatik herritarra ezin bada helbide berrian erroldatu, zirkulazio-baimenen eta gidabaimenen helbide-aldaketa bertan behera geratuko da eta artxibatu egingo da.
Informazio lagungarria	<ul style="list-style-type: none"> • Gipuzkoako Trafiko Buruzagitza Julio Caro Baroja plaza, 2. 20071 Donostia – San Sebastian Telefonoa: 943 452 000 – Informazio orokorra: 060. • Trafikoko Zuzendaritza Nagusia: www.dgt.es